





Elektrizitatea eta Elektronika

Oinarrizko
lanbide heziketa



GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII - CIFP INNOVACIÓN SOCIAL





Elektrizitatea eta Elektronika

FAMILIA: Elektrizitatea eta Elektronika
IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.
METODOLOGIA: Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

SARTZEKO BALDINTZAK:

- > 2. DBH kurtsatuta izatea
- > Matrikulatzen den urtean gutxienez 15 urte betetzea

ORDUAK GUZTIRA:

2 URTE / 2.000 ORDU
(ikastetxean eta horietatik 260h enpresan)
Eredua: A, B, D

LORTZEN DIREN TITULUAK:

- > **DBH** titulua
- > Oinarrizko lanbide heziketako titulua

Honako profesionaltasun ziurtagiriak:

ELE255_1: Eraikinetan instalazio elektroteknikoak eta telekomunikazioetakoak muntatzeko eragiketa osagarriak

ELE481_1: Tresneria elektrikoa eta elektronikoa muntatzeko eta mantentzeko eragiketa osagarriak

FORMAZIO PLANA

LANBIDE MODULUA

ORDU-ESLEIPENA KURTSOA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
Zientzia aplikatuak I.	165	1º
Komunikazioa eta gizartea I.	165	1º
Instalazio elektriko eta domotikoak.	231	1º
Telekomunikazioetako instalazioak.	165	1º
3015. Ekipo elektriko eta elektronikoak.	231	1º
Tutoretza eta orientabidea I.	33	1º
Zientzia aplikatuak II.	144	2º
Komunikazioa eta gizartea II.	168	2º
3016. Datuak transmititzeko sareak instalatzea eta mantentzea.	144	2º
E570. Behe-tentsioko instalazio elektrikoen eta telefonia- eta komunikazio-instalazioen muntaketa eta mantentza-lana.	168	2º
E571. Elektrizitate- eta elektronika-zerbitzuen bezeroentzako arreta.	48	2º
Laneko prestakuntza eta orientabidea.	53	2º
Lantokiko prestakuntza.	260	2º
Tutoretza eta orientabidea II.	25	2º
ZIKLOA GUZTIRA	2.000	

ERASMUS +: Programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

LH DUALA aukera: Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten modalitatea.



LORTUTAKO GAITASUNAK:

Profesional hau gai izango da:

- > Materialak eta erremintak pilatzea, eraikinetako behe-tentsioko instalazio elektrikoetan, instalazio domotikoetan eta telekomunikaziokoetan muntatzeko eta mantentzeko lanak egiteko.
- > Kanalizazioak eta hodiak muntatzea, kalitateko eta segurtasuneko baldintzetan eta ezarritako prozedurari jarraituta.
- > Eraikinetako behe-tentsioko instalazio elektrikoetan eta instalazio domotikoetan kableatua zabaltzea, teknika eta prozedura normalizatuak aplikatuta.
- > Instalazio elektroteknikoetako tresneria eta elementu osagarriak muntatzea, kalitateko eta segurtasuneko baldintzetan eta ezarritako prozedurari jarraituta.
- > Instalazioak mantentzeko eta muntatzeko mekanizazioko eta loturako teknikak aplikatzea, horien beharren arabera.
- > Eraikinetako oinarrizko egiaztapen eta proba funtzionalak zein erregelamenduzkoak egitea, tresna egokiak eta ezarritako prozedura erabilia.
- > Instalazioetako tresneria eta elementuak mantentzeko eta konpontzeko eragiketa osagarriak egitea, horien funtzionamendua bermatuta.
- > Instalazioak muntatzeko eta mantentzeko prozesuetan egindako esku-hartzeetan kalitateko eta segurtasuneko protokoloak aplikatzea.



Nire ikasketak amaitzean, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du.

IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- > Lanbide-espezializazioko ikastaroak.
- > Erdi-mailako lanbide-heziketa ziklo bat, indarrean dagoen araudiaren arabera lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- > Batxilergoa, haren edozein modalitatetan.

LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:

- > Behe-tentsioko instalazio elektrikoetako langilea.
- > Satelite-telebistako antena hartzaileen muntatzailearen laguntzailea.
- > Tresneria telefonikoko eta telegrafikoko instalatzailearen eta konpontzailearen laguntzailea.
- > Komunikazioko tresnen eta sistemen instalatzailearen laguntzailea.
- > Telefono-instalazioetako instalatzailearen eta konpontzailearen laguntzailea.
- > Energia elektrikoaren produkzioko eta banaketako industriaren peoia.
- > Sistema mikroiinformatikoetako muntatzaile laguntzailea.



GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII - CIPF INNOVACIÓN SOCIAL

 Karmelo Labaka 7, Hernani

 943 55 19 58

 idazkaritza@hernanilanh.eus

 www.hernanilanh.eus

